



**El único discurso válido será el pronunciado por el o la oradora en el acto.
Balioa izango duen diskurtso bakarra izango da hizlariak bertan eskainiko duena.**

Aitana Agirre

2024.6.5 Donostia

Donostiarra, euskalduna eta europarra naiz.

Europeista naiz konbentzimenduz eta ez komenientziagatik. Baina idealengatik barruan egon nahi izateaz gain, komeni ere komeni zaigu Europar egotea. Europak asko eman digu belaunaldi desberdinetan zehar, bai Europar Batasunean sartu aurretik eta baita gerora ere.

Agirre Lehendakariaren belaunaldiarentzat, bi Mundu Gerra eta Gerra Zibil bat bizi eta gero, Europa askatasuna berreskuratzeko proiektua izan zen. Garai hartako gizon-emakumeei esker, ez dugu beste gatazka armaturik ezagutu Europar Batasuna osatzen duten herrien artean. Hurrengo belaunaldientzat, hainbeste kolperen ondoren Frankismotik atera berri zeudenentzat, demokrazia ziurtatzeko modua izan zen. Haiei esker, Europa da estatu demokratiko gehien dituen kontinentea.

Nire belaunaldiarentzat, Europa etorkizuna da. Eraikitzeke dagoen etorkizuna, baina gure bizitza zalantzarik gabe baldintzatuko duena. Gure esku dago ekainaren 10etik aurrera nolako Europa izango dugun erabakitzea. Gure botoaren esku egongo da Europa polarizatu bat izatea, gero eta arrazistagoa dena, LGTBIQ+ kolektiboaren eskubideak errespetatzen ez dituen, emakumeok orain arte lortutakoa atzera botako duena eta estaturik gabeko nazioen kontra egingo duena edo orain arteko bidean jarraitzea aniztasunaren, demokraziaren, giza eskubideen eta herrien eskubideen bidetik.

Ikusten dugun bezala, orain arte lortutako eskubideak ezin ditugu emantzat edo ziurtzat jo. Eskubideak eta aurrerapenak lortzea oso zaila da, baina atzera egitea urte gutxi batzuetako gauza da. Ataka horretan dago egun Europa: pixkanaka-pixkanaka aurrera egin edota iragan ilunera itzuli.

Horregatik:

1. Bakearen eta Europa libre baten parte izango zen Euskadi aske baten alde egin zutenengatik,
2. Euskadin eta Europar demokrazia ziurtatu eta bermatzeko lan egin zutenengatik,
3. Giza eskubideen, Europako eredu sozialaren, berdintasunaren, euskararen, klimaren alde lanean jarraitu behar dugu guk! Etorkizunaren alde lan egiten jarraitu behar dugu guk!

Ez dakit nolakoa izango den etorkizuneko Europa, baina indartsuagoa izan behar du. Hitzaldia etxean nagoela esaten hasi dut. Europa ere etxea da, eta denon artean zaindu eta elkar lagundu behar dugu. COVID-19aren krisiarekin edota Putinen Ukrainako inbasioaren harira ondo ikusi dugu bat eginik lan egiten dugunean emaitzak hobek direla, baina ez da nahikoa. Ukrainarrak laguntzen jarraitu behar dugu; Ukraina defendatzea Europa defendatzea delako, Ukraina defendatzea Euskadi defendatzea delako!

Norberak bere burua antimilitaristatzat definitzeak eta ukrainarrak ez babesteak ez die ezertan laguntzen. Herri subirano baten inbasioa zuritzea da hori!

Euskadi beti egon da gehien behar dutenen alboan, eta garai hauetan ere ezin dugu inor atzean utzi. Ukrainarrek zein palestinarrek alboan behar gaituzte, jasaten ari diren giza eskubideen aurrean haien aliatuak izan behar dugu.

EAJ-PNV balore batzuetan oinarritzen da, eta orain, inoiz baino gehiago, horien defentsa zurruna egin behar dugu Europako Parlamentuan, etorkizunean Europa zatitu baten ordezkari Europar Batasun bat izan nahi badugu behintzat.

Kanpaina honetan asko azpimarratu dugu alderdi guztiok beharrezkoa dela estremismoei aurre egitea. Garrantzitsua da hala ere bakoitzak ultrei aurre nola egingo dien jakiteak: hitz potolo eta ponposoekin edota esperientzia eta proposamenekin.

Horregatik, Euskadi eta Europa demokratiko batean sinesten baduzu, inor atzean utziko ez duena, gizon-emakumeen berdintasunean sinesten baduzu, LGTBQ+ kolektiboaren eskubideengatik borrokatzeko prest bazaude, euskaraz hitz egiten duen Europa bat nahi baduzu, gure herriak bere etorkizuna demokratikoki erabakitzeko eskubidea duela sinesten baduzu, igande honetan joan bozkatzera! Animatu ingurukoak eta joan bozkatzera!

Ekainaren 9an bozkatu etorkizunagatik! Bozkatu Oihane Agirregoitia! Bozkatu Euzko Alderdi Jeltzalea!

Gora Euskadi Askatuta!